



**ROCH KAFEA**  
COMEDIAS 6, IRUÑEA

#### URTEEN XARMA

Piperrengatik da ezaguna, eta goizeko solasal-diengatik. Iruñeko zaharrenetakoa izateagatik, eta dekorazioarengatik. Eta lasaitasunarengatik. Eta Javier Del Rioren kristalengatik, eta artista ezezagunen erakusketengatik. Baina, batez ere, giroagatik: Roch Kafeak ezin du ezkutatu urteen zama (xarma). Eugenio Roch lesakarrak ireki zuen, 1898. urtean. Garaiko iragarkiarengatik badakigu likore mota guztietakoak, kafea, gaseosa eta gara-gardoa saltzen zuela. Kafea eta kopa, esaterako: 0,25 pezeta. Aldaketa politikoak ondo gainditu zituen —nonbait garrantzitsua oso joan den mende-

ko Iruñean—, eta aita Mexikora joan zenean, seme-alabek hartu zuten kafea. 1984. urtean oraingo nagusiei pasatu zieten. Urteak gorabehera, Eugenio Rochek lokala zabaldu zueneko detaile asko daude oraindik kafean, burdina landuzko oinarrietan eusten diren marmolezko mahaiak, Baztandik ekarritako marmol arrosazko barra edo lurrea. Desagertu dira, noski, edariak freskatzeko harraska, «emakumeendako gela» eta bezero bakoitzak zuen botila. Egun, urtero pintatzen dituzte paretak, goizean solasak entzuten dira, eta arratsaldean lagun zaharrak elkartzen. ●

ALBERTO BARANDIARAN



**EUSKAL GIROA.** Antzerkia, kontzertuak, dantza... eta barazkijaleentzako menua. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS



**XIX. MENDEA BIZIRIK.** 1898az geroztik, Iruñean historia egin du Roch kafeak. LANDER FERNANDEZ ARROABE / ARGAZKI PRESS